



PIXOIHALA KENDU

LIBURUAREN FITXA TEKNIKOA

Izenburua: Begiratu dezaket zure pixoihalean?

Idazlea: Guido Van Genchten

Argitaletxea: Ttartalo

Urtea: 2016

Hizkuntza: euskara

Sinopsia:



Xaguk jakingura handia du. Den-dena usnatu behar du, baita lagunen pixoihalak ere. Banan-banan, erbiaren, ahuntzaren, txakurraren, behiaren, zaldiaren eta txerriaren pixoihalak usnatu ditu. Jakina, besteek ere Xaguaren pixoihala begiratu nahi dute. Eta ezusteko handia hartu dute.

IRAKURKETA GIDA DIDAKTIKOA

Gaia: Esfinterrak kontrolatzea eta pixoihala erabiltzeari uztea.

Helburuak

- Haurrei fardela erabiltzeari uzten animatzea.
- Gurasoei haien seme-alabei fardela behin-betiko kentzen laguntzea.

Gomendatutako adina: 2-4 urte

Informazioa

Hasi aurretik, hausnartzeko zenbait galdera uzten dizkizuegu:

1. Zer dela eta da guretzat garrantzitsua gure seme-alabak fardela erabiltzeari uztea?
2. Nork hartu du gure seme-alabari fardela behin-betiko kentzearen erabakia?
3. Gure seme-alabaren adina kontuan izanda, nola sentituko ginateke, behin fardela kenduta, leku publikoren batean esfinterrak kontrolatzea lortuko ez balu?
4. Egunez kentzearen erabakia hartuta ere, gauez fardela erabiltzen utziko diogu?

- **Pixoihala kentzerakoan kontuan hartu beharreko jarraibide batzuk:**

Kentzeko orduan, gogoan izan pazientziaz eta irmotasunez jokatu behar duzuela zuen erabakiarekin, zuen seme-alabari nola eta zergatik jokatu duzuen horrela argi azalduz. Komenigarria izango litzateke, eusteko gai den denbora kontuan hartuta, komunera joateko ordutegi erregular bat ezartzea eta ekintza asko ez luzatzea. Baliteke noizean behin hura kontrolatzeko gai ez izatea, ihes egitea edo komunera garaiz ez iristea. Kasu horietan, lasai jardun, adi egotearen garrantzia azaldu eta, hurrengorako animatuz, bera bakarrik aldatzeko behar duen guztia eman (beharrezkoa denean bakarrik lagunduko diogu janzten). Arropa aproposa erabil ezazue beti, gomak dituzten jantzi erosoak, zuen seme-alabak erraztasunez eta azkartasunez erabil ditzakeenak.

Kasuaren arabera, fardela kentzearen prozesuan etenaldiren bat egitea posible litzateke. Kontuan izan behar da gaueko kontinentziaren kontrola ez dela entrenatzen, heltzearen araberakoa baita. Beraz, egunean zehar pixoihala kentzea lortzen baduzue ere, gauez eta siesta-garaian erabiltzen jarraituko dugu. Hau, ahal den neurrian kendu, gauez bainugelara joateko aukera duela eta lotara joan aurretik, eta ondoren ere, komunera joan behar dela adieraziz.

Liburua irakurri baino lehen...

1.- Lehenengo oharra

Zuen seme-alabarekin pixoihalaren inguruan hitz egin ezazue: asko hazi dela esaziozue, ondo egiten dituen zenbait gauza adierazi eta bere kabuz egin nahi dituen beste ekintzak zeintzuk diren galdetu iezaiozue.

Kontuan izan babestuta, lagunduta, maitatua eta gustura sentitzeak garrantzia handia daukala, eta, hori guztia, momentu horretara arte lortu duenaz harro zaudetela jakinaraziz lortu dezakezuela. Izan ere, zuen seme-alabak, zuen begietara txikiak badirudite ere, kontuan izan zuen hitzek eta ekintzek eragin nabarmena izango dutela beren hazkundean eta nortasunaren bilaketan. Umearengan sentitzen duzuen harrotasuna eta maitasuna espresatzen badiozue, bere buruarekiko segurtasun handiagoa sentituko du, helburutzat hartzen duena bere kabuz lortzeko ziurtasunarekin.

2.- *Begiratu dezaket zure pixoihalean?* liburuari buruz hitz egin

Utz iezaiozu zure seme-alabari liburua nahi duen moduan ikusten eta manipulatzeko. Irakurketaren lehenengo harremana irakurriko edota entzungo duen materialaren erabilerara ohitzea da, behatuz, ukituz eta harekin jolastuz. Jarduera horretan parte har ezazu, azalari eta haren marrazkiei buruzko galderak egin. Hona doakizu galdera sorta bat, adibide gisa:

- Zein animalia ikusten duzu liburuaren azalean? Nolakoa da sagutxoak?
- Zer dauka saguak jantzita? Zertarako erabiltzen du fardela?
- Zer dauka saguak bere ondoan? Zein koloretakoa da?
- Saguari trenak gustatzen zaizkiola uste al duzu? Eta zuri, trenak gustatzen zaizkizu?
- Entzun zer galdetzen dizun saguak! “Begiratu dezaket zure pixoihalean?”
Utziko diozu zure pixoihalean begiratzen?

Liburua irakurtzen duzuen bitartean...

1.- Gomendio batzuk

Liburua astiro irakurri, intonazio egokia erabiliz. Orrialde bakoitza zabalgarri banarekin dator, animalia bakoitzak bere pixoihalean zer duen deskubritzeko. Zure seme-alabari horiek mugitzen utzi, eta mugitu baino lehen eta ostean zer ikusten duenaz galdetu.

Horretaz gain, liburu honek zeinbait esaldi errepikatzen ditu. Esaiozue zure seme-alabari horiek errepika ditzala, baita animalien izenak ere, pixkanaka-pixkanaka ikasten joan ditzan.

2.- Orriz orri

- **Xagu ezagutzen**

<<Hau Xagu da. Kuxkuxero hutsa da Xagu. Dena ikertu eta begiratu behar du.>>
<<Ikusten dituen zulo guztietan begiratzen du...>>
<<... eta ontzi eta botila guztietan. Zulo guztietan sartzen du muturra. DEN-DENA ikusi behar du!>>

Galdera batzuk:

- Nolakoa da Xagu? Zuri ere dena ikertzea gustatzen al zaizu?
- Non begiratzen du beti Xaguk?

- **Erbiaren pixoihala**

<<Egun batean, lagunaren txanda iritsi da. Batere lotsarik gabe, hauxe galdetu dio Xaguk erbiari: -Erbi, begiratu dezaket zure pixoihalean?
-Begiratu, lasai!
-Zazpi erbi-kaka ikusten ditut -esan du Xaguk-. Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, ZAZPI!>>

Galdera batzuk:

- Non begiratu nahi du Xaguk?
- Zertarako erabiltzen dira pixoihalak? Zuk pixoihala erabiltzen duzu?
- Zer topatuko duela uste al duzu?
- Ondo zenbatu al du Xaguk? Erbiari fardela jaitsi eta zenbatu itzazu zuk ere.

- **Ahuntzaren pixoihala**

<<Xaguk ahuntzarekin egin du topo, eta galdetu dio:
–Ahuntz, begiratu dezaket zure pixoihalean?
–Begiratu, bai, begiratu ondo! –erantzun dio ahuntzak, eta aurreko hankak altxatu ditu,
Xaguri laguntzeko.
–Banengoen ba ni! –barrezka, Xaguk–. Ahuntz-kaka. Kaka-pikor beltz pila bat.>>

Galdera batzuk:

- Zein animaliaren pixoihalean begiratu nahi du Xaguk?
- Zenbat kaka egin ditu ahuntzak, asko ala gutxi? Nolakoak dira bere kakak?

- **Txakurraren pixoihala**

<<Txakurra ikusi duenean, Xaguk segituan galdetu dio:
–Begiratu dezaket zure pixoihalean?
–Hori egin nahi baduzu...
–Hara! –egin du oihu Xaguk–. Txakur-kaka luzea, amaieran punta duena.>>

Galdera batzuk:

- Zein koloretakoa da txakurra?
- Nolakoa da txakurraren kaka? Atzamarrarekin kakak daukan forma egingo dugu.

- **Behiaren pixoihala**

<<Jo ta ke dabil Xagu.
–Aizu, Behi, begiratu dezaket zure pixoihalean?
–Jakina! –erantzun dio behiak, oso harro.
–Behi-kaka fresko eta handia! Nola ez! –esan du Xaguk, burua astinduz.>>

Galdera batzuk:

- Zer dauka behiak bere kamisetan? Badakizu nola deitzen diren lore horiek?
- Zer dauka behiak buruan? Eta nolakoa da bere isatsa?
- Behiak ere fardela darama? Nolakoa da bere kaka?

- **Zaldiaren pixoihala**

<<–Kaixo, Zaldi. Begiratu dezaket zure pixoihalean?
–Bai zergatik ez? –erantzun dio zaldiak pixka bat harrituta.
–Hiru zaldi-kaka polit eta biribil –esan du Xaguk, pozarren.>>

Galdera batzuk:

- Nola dago zaldia? Zein aurpegi jartzen dugu harritzen garenean?
- Zaldiak ere kaka egin al du? Zenbat kaka egin ditu zaldiak? Eta nolakoak dira bere kakak?

- **Txerriaren pixoihala**

<<Txerria da azkena.
–Txerri, arren, begiratu dezaket zure pixoihalean?
–Ez dakit... Tira, ondo da! –erantzun dio txerriak, lotsagorrituta.
–Txerri-kaka piloa. Banuen, bai, susmoa! –esan du Xaguk, usnaka.>>

Galdera batzuk:

- Zelan eskatzen dio Xaguk txerriari bere pixoihala ikusten utzi diezaion? ¿Arren edo mesedez eskatzeaz aparte, zer gehiago esan behar dugu?
- Zergatik dago lotsaturik txerria? Nola jartzen zaigu aurpegia lotsatzen garenean?
- Nolakoak dira txerriaren belarriak? Eta zein kolore ditu bere kamisetak?
- Xaguk txerriaren kaka usaintzen du. Nola uste duzu usaintzen duela? Zer aurpegi jartzen dugu usain txarra duen zeozer usaintzean?

- **Xaguren pixoihala**

<<–Aizu, Xagu, begiratu dezakegu zure pixoihalean? –galdetu diote erbiak, ahuntzak, txakurrak, behiak, zaldiak eta txerriak, ikusmin handiz.
–Aurrera! Erantzun du Xaguk.>>

Galdera batzuk:

- Ba al dakizu zein den erbia? Eta ahuntza? Atzamarrarekin esan zein den zaldia. Eta beste hau zein da?
- Guztiek al daramate pixoihala? Zer uste duzu direla, animalia handiak ala animalia txikiak?
- Zer uste duzu topatuko dutela animaliek Xaguren pixoihala? Nolakoa izango da bere kaka? Guztiek kaka zeukaten pixoihalean, baina zer gehiago topatu dezakegu barruan?
- Begiratu zuk ere Xaguren pixoihalean. Zer topatu dute animaliek Xaguren pixoihalean? Zergatik uste duzu hutsik dagoela?

• **Pixontzia ezagutzen**

<<–Hara! –harrituta gelditu dira guztiak. –Zure pixoihala hutsik dago! –Nola liteke?>> <<–Oso erraza da –esan die Xaguk–: pixontzian egiten dut kaka. Begira hortxe dago. –Pixontzian?>> <<Guk ere probatu nahi dugu!>>
--

Galdera batzuk:

- Non egin du kaka Xaguk?
- Begiratu animalia guztien aurpegiak Xaguren pixontzia ikustean. Nola sentitzen direla uste duzu?
- Animalia guztiak pixontzia probatu nahi dute. Nola sentitzen direla uste al duzu?
- Zein koloretakoak da animalia bakoitzaren pixontzia?
- Zure lagunaren batek pixontzia erabiltzen al du?
- Etxean ba al daukagu pixontzirik? Bat erostea nahiko zenuke? Zein koloretakoa?

Liburua irakurri ostean...

1.- Istorio gehiago, jokaera eredu gehiago

Xaguren istorioa zuen seme-alabak nahi beste alditan irakurtzeko aukera izanda, pertsonaiei buruz eta bere ustez, fardela erabili beharrean, pixontzia erabiltzen badakiten galdetzeko aprobetxatu. Izan ere, ziur gomak galarazi egiten ziela, ehunak azkura ematen ziela eta, denbora luzez fardelean txiza eta kaka izateak, azala narritatzen ziela.

Gainera, Begiratu dezaket zure pixoihalean? -ren irakurketa, prozesu hau lantzen duen beste ipuinen baten irakurketarekin bateratu dezakezue. Gogora ezazue, irakurtzen duzuen bitartean, zuen seme-alabarekin solasaldian gaia lantzen eta istorioaren parte bihurtzen, liburuaren eraginkortasuna handitzen duela, ikasteko eta garatzeko tresna gisa.

2.- Nire etxeko bainugela ezagutzen

Zuen seme-alabak bere egunerokotasunean komunaren erabilerari dagokionez, balio ez duen teknika badirudi ere, bere elementu eta erabilera egokira ohitzea ezinbestekoa da. Arrazoi horregatik, zuen etxeko bainugelara txango bat prestatuko duzue, non komunontzia, konketa, eskuoihala, bideta eta abar erabiliko dituzuen.

Garrantzitsua da zuen seme-alaba horien guztiek erabiltzera laguntzea eta bakoitzaren errutina azaltzen joatea, komunontzia edo pixontziaren erabilera, eta erabili ondorengo garbiketa (bai bere gorputzekoa, bai pixontziarena eta zikindu duen arroparena) nabarmenduz.

3.- Jolas sinbolikoa

Behin komuneko zein txizontziaren erabilera arauak ezagutzen dituela, jolas sinbolikoaz baliatu zaitezke, gustuko duen panpinen batekin, behar duenean jostailuzko txizontzia erabiltzen duela eginez. Modu entretenigarri batez eta bere

erritmoa jarraituz, zuen seme-alaba bere txizontzia, edota nagusien komunontzia, erabiltzera animatuko duzue.

4.- Komunera joateko ordua

Komunera joateko ordutegi bat ezartzea zeregin zaila daiteke hasieran, baina errutina bat jarraitzeak, zuen seme-alaba bere esfinterra neurri handi batean kontrolatzen eta, egiten dagoena utzita, bere beharrez arduratzen lagunduko du.

Zuen seme-alabak jarraitu behar duen errutina ikusteko taula bat sortuko duzue: esnatzean txizontzia erabili (gauez fardelean txiza egin badu ere), etxetik atera baino lehen, bazkaldu aurretik eta ostean, lotara joan baino lehen...

Errutina taulaz aparte, komuneko errutina azaltzen duten irudiak dituen infografia bat sortzera eta zuen seme-alabak pixontzia erabiliko duen altuera batean jartzera animatzen zaituztegu. Toallatxo higienikoak eta aldatzeko arropa bere eskura izateak bere autonomia garatzen ere lagundu dezake.

5.- Kontuz, ihesi doala!

Familia-giroan, zuen seme-alaba, komunera joateko gura duenean, bidea aurkitzen lagunduko duen ibilbidea sortuko duzue. Horretarako, marrazkiak, pegatinak zein zintak erabil ditzakezue, eta horiek lurrean edota paretan itsatsi. Zuen seme-alabari, egingo duzuen jarduera eta geroago bide hori zertarako erabiliko duen aurretiaz azaltzeak garrantzia handia dauka.

Behin ibilbidea sortuta eta elementu adierazle guztiak jarrita dituzuela, hainbat modutan jolastuko zarete: lehenik eta behin, harekin entsegu- edo simulazio-lasterketak egingo dituzue.

Ondoren, zulo txiki bat duen ur-puxika zein zuen seme-alabak maneiatu dezakeen perrail bat erabiliz egin dezakezue ibilbidea, ura pixontzi barrura botatzera korrika

eginez eta lurrera ahalik eta ur gutxien isurtzen saiatuz. Jarduera hau pixkanaka zaildu dezakezue, ibilbidea bukatzeko denbora laburragoa ezarrita edota, gutxinaka luzatzen joateko, ibilbidearen erditik hasita.

Ibilbidea menperatuta duenean, komunera joateko gura duenean zer egin behar duen azalduko diozue berriro ere; eta, bera bakarrik kentzeko gai den pixoihala erabiliz, froga errealak egitera pasako zarete. Kontuan izan hasieran ez dela konturatuko komunera joateko gogoia duela eta, beraz, zuen seme-alaba animatu beharko duzue noizean behin zortea probatzera (komunera korrika egin, pixoihala kendu eta pixontzian esertzen).

Modu honetan, zuen seme-alabaren kanpoko motibazioa areagotzen saiatuko zarete eta, aurrerantzean, intrintsekoa bihurtzen; izan ere, denborarekin (bere erritmoan eta laguntzen jarraitzen ahaztu gabe), jarduera hau pixoihala erabili gabe egiten lortuko du.

Hobetzen lortuko badu ere, litekeena da noizean behin txiza ihes egitea. Horrelakoetan, lasai egon, ez dela ezer gertatzen azaldu, baina hurrengoan arretatsuago eta bizkorrago ibili behar duela adierazi eta bere kabuz jarraitu behar duen errutina gogorarazi.

GAIA LANTZEKO BESTE LIBURU BATZUK

- Nondik datoz pixontziak? (Guido Van Genechten). SM, 2023.
- Listos para dejar el pañal (Clara Mas Bassas). Duomo, 2023.
- La nutria Ete descubre el orinal (Claudio Gobbetti). Castellgalí, 2022.
- Begiratu dezaket zure pixontzian? (Guido Van Genechten). SM, 2022.
- No más pañales (Marion Cocklico). Picarona, 2022.
- Penguin's potty (Gareth Conway). IglooBooks, 2021.
- Pato usa el orinal (Michael Dahl). Anaya, 2021.
- Pixontzia (Emily Emerson). Antwepen, 2021.
- Dani eta fardelaren misterioa (Carolina Laguna). Sentir Marcombo, 2019.
- Pixontzian! (Alice Le Hénand). Ibaizabal, 2018.
- Alex. Pixontzia erabiliko dut (Sara Sánchez). Ballon, 2018.
- Tonto eta pixoihalak (Ricardo Alcántara). Ibaizabal, 2011.

5-7 urte

- Gotitas (Shinsuke Yoshitake). Pastel de Luna, 2021.
- Nire potxolina maitea (Alaine Agirre). Elkar, 2013



* Liburu guztiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean eskuragarri daude.